



Guraso elkarteko oharra:

Korrika txikia apirilaren 11n ospatuko dugu herriko bi ikastetxeok elkarrekin. Arratsaldeko 15:30etan izango da eta ondoren guraso elkarteek txokolatada antolatu dute guztiontzat Zabel plazan (eguraldi txarra eginez gero Merkatu Plazan izango da). Egun horretan **laguntza beharko da txokolatadan** laguntzeko. **Norbait** horretarako **prest balego**, esan ikastetxean mesedez.

Bestalde, jakingo duzuen bezala Korrika ostiral goizean (apirilak 12) pasatuko da Mutrikutik 06:00ak aldera. Beti bezala ikastetxeak kilometro bat du eta Guraso Elkarteak beste bat, goiko errotonda ingurutik Entzus bitartean.

Guraso den norbaitek **lekukoa eraman nahiko balu, bakarrik edo seme-alabekin, aditzera eman ikastetxean**. Parte hartu nahi duzuenon artean **zozketa egingo da**. Gainontzeko guztiak, bertara hurbildu. Ondoren "Lagun artea" elkartean txokolatada egingo da eta korrikalari guztiak zaudete gonbidatuak.

ANIMATU ETA PARTE HARTU...

KLIKA KORRIKA!!!!

